

IKASTOLA



**Ikastolen
ikaskuntza
prozesu
eraldatzailea**

**Ikastola Eredua,
Hezkuntza markoa:
Euskal
Curriculum +
konpetentzietan
oinarrituta +
integrazioaren
pedagogia**



LOMCE ez da errebalida soil bat

Errebalidarik ez da egingo aurtengo ikasturtean, Batxilerra amaitzerakoan. Haren orde, orain arteko selektibitatearen antzeko proba bat egingo da, eta ez da beharrezkoa izango hura gainditzea batxiler titulua eskuratzeko. DBH amaierako probak ere ez du errebalida izaerarik edukiko. Baina LOMCE ez da errebalida soilik, eta gaur gaurkoz indarrean dirau, aipatzen ari diren Hezkuntza Itun baten atarian. Balizko hezkuntza itun horrek, onenean ere, LOMCEren aurreko egoerara eramango gintuzke. Eta ikastolei horrek ez digu balio, ezta euskal hezkuntza sistema bati ere. Guk gure hezkuntza eredu propioa aldarrikatzen dugu, Euskal Herrirako, eta bide horretan urrats bat egiteko, Hezkuntza Legea aldarrikatzen jarraituko dugu Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeentzako.

Legerik gabe, ikastolak gure hezkuntza eredu dugu LOMCEri aurre egiteko, haren beste muturrean baitago, euskal curriculumean eta kompetentzietan oinarrituta, eta integrazioaren pedagogiaren bidez, egunero gelaratzen dugun eredu. Beraren bidez, ikaskuntza prozesua eraldatzen ari gara ikastoletan.



03 ERREPORTAJEA
IKASTOLA EREDUA: HEZKUNTZA MARKOA
IKASKUNTZA PROZESUA
ERALDATZEN ARI DEN
EREDU PEDAGOGIKOA

08 ZUZENDARI ETA ADMINISTRARI BURU
BERRIEN MINTEGIA
Ikastola eredu sakontzen,
zuzendari eta administrari buru
berriekin

10 ELKARTASUN IKASTOLAK
Ikastolek 800.000 euro banatu
dituzte bederatzai proiekturen
artean

12 JOKOGINTZA BERRIAK
Jolastu FAMILIAN!

14 HIZKUNTZ ESKUBIDEAK
Hizkuntza Eskubideak
Bermatzeko Protokoloa
aurkeztuko dute Kursaal

16 ORIENTAZIOA

18 GIZA ESKUBIDEAK
Geure mugikorrek ezkututzen
dutena

20 IKASTOLAK BANAKA

aldizkaria.ikastola.eus

@ikastola_aldizk

IKASTOLA 221 / 2016ko ABENDUA

EDITATZAILEA:
EUSKAL HERRIKO
KASTOLAK
IKASTOLEN ETXEA,
Errotazar bidea, 124
20018 DONOSTIA
Tel.: 606 33 41 45
aldizkaria@ehi.ikastola.net

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Txema Garzia Urbina
INPRIMATZAILEA:
GERTU inprimategia
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

LEGE-GORDAILUA:
SS 425-2015



ikastolenelkartea

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA:
Koldo Aldabe

IKASTOLEN CURRICULUMA EUSKAL CURRICULUMAREN GARAPENA DA, eta hura osatzeko agindua jaso zuen Ikastolen Elkarteak, 2009ko Ikastolen VII. Batzarrean onartutako 'Ikastolak orain eta gero' dokumentuaren bitartez. Dokumentu horretan dagoen esaldi batek laburbiltzen du mandatu: "Kompetentzietan Oinarritutako Hezkuntzaren ikuspegitik Euskal Curriculumaren garapena gauzatzea, etapa eta arlo guztientzat marko komunean oinarrituz". Marko hori da ikastolak lantzen ari diren ereduaren aterkia.

Euskal Curriculumaren garapenerako kompetentzietan oinarritutako hezkuntza da gaur Ikastola Ereduari, 0-20 urte bitarte eta etapaz etapa, lotura eta koherentzia emango diona. Horixe da ikastolen marko pedagogikoaren printzipio nagusia. Printzipio nagusi honek aspektu guztiak hartu ditu, alegia, hauek: esku-hartzerako proposamen didaktikoa, ikasmaterial eskaintza, prestakuntza eta aholkularitza.

Euskal Curriculumaren garapenerako Ikastolen Elkartearen curriculum diseinuak dituen ezaugarri bereizgarriak, berriz, hurrengo elementuekin osatzen dira:

- **Ikaslearen irteera-profilean oinarrituta dago. Etapa bakoitzean ikasleak bereganatu behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta kompetentziak zehaztuta daude, hau da, azken helburuak jarrita daude. Irteera profilararen arabera eraiki da hezkuntza prozesu osoa.**
- **Euskal curriculumean oinarrituta dago. Iragan hamarkadan landu zen, eta 2008-09 urteetan Euskal Herriko ikastetxe gehienek elkarrekin eraiki eta onetsi zuten Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum. Zeintzuk dira helburuak? Azken batean, pertsonaren garapen osoa (norbanako, gizartekide eta izadikide gisa) lortu ahal izateko oinarri sendoak finkatzea bilatzen du; geure-geurea den euskal kultura espezifikokoaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratzeko; ondorengo ikasketak egiteko eta lan munduan aritzeko prestatzea; eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko prestatzea.**
- **Arlo guztietan txertatzen ditu oinarritzko kompetentzia orokorrak, kompetentzia digitala barne.**



IKASKUNTZA PROZESUA ERALDATZEN ARI DEN EREDU PEDAGOGIKOA

Euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritutako eredu pedagogikoa DBHko maila guztietan ezarria, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailan esperimazio fasean dela, ikastolak hurrengo urratsak egiteko gertu daude. Horretarako, Ikastolen Elkarteak ibilbide orri bat prestatu du, 0-20 urte bitarteko etapa guztiak aintzat hartzen dituena, eta etapaz etapa egin beharreko urratsak zehazten dituena. Hori izango da ikastolen hezkuntza marko berria, ikaskuntza prozesua eraldatzera datorrena.





Dagoeneko ez da nahikoa jakintza akademikoa eskuratzea. Edozein bizitza-egoeratan konpetentea izatea lortu behar du ikasleak; pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, eta egiten eta ekiten jakin behar du.

- **Integrazioaren pedagogian oinarritzen da. Egoerei irtenbideak aurkitzen ikasi behar du ikasleak, ikasitakoa egoera berrietan baliatzeko. Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar dute; irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta lan taldean moldatu, arazoaren soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu.**
- **Ikaskuntza kooperatiboa erabiltzen da, taldean lan egiten dute. Ikaskidetzan oinarritutako esku-hartzea bultzatzen du**
- **Euskararen ardaztutako eleaniztasuna. Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ardazturiko planteamenduan.**

DBHtik ABIATUTA, ETAPA GUZTIETARA HEDATUZ

Arestian aipatu bezala, Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntzaren ikuspegitik Euskal Curriculumaren garapena gauzatu da Ikastolen Elkarte, etapa (eta arlo) guztientzat marko komun honetan oinarrituz, Ikastolen Hezkuntza Eredua osatu/birdefinituz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik (DBH) hasi zen inplementazioa. DBHko maila guztietara hedatu da aurtengo ikasturtean, 4. mailara iritsiz. EKI proiektuaren sortze fasea ikasturte honetan amaitzen da, beraz. Alegia, DBHn konpetentzietan oinarritutako ikastolen curriculum diseinuaren elementuak txertatu dira.

Baina ez da lana horretan amaitzen. Aberastu beharreko aspektuak daude: ebaluazio sistema (bere buletin informatiboarekin); aniztasunaren trataera egiteko irizpi-



deak zehaztu behar dira; eta Ikastoletan zentratutako prestakuntza eta aholkularitza zerbitzua diseinatu behar da.

Gainera, egindako proposamena kontrastatu eta eguneratzeko asmoa dago 17/18 ikasturtean.

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzari dagokionez, bigarren zikloan ikas materialak ekoitzi eta esperimentatzen hasiak dira 6.mailan. Etapako irteera-profila zehazten ari dira, curriculum proposamena (konpetentziak, helburuak..), unitate didaktikoen diseinu eta sorkuntzan murgilduta daude, eta baita irakasleen prestakuntzan ere. Aurtengo ikasturtean hamar ikastolatan ari dira EKI 6. mailako unitateekin. Hurrengo ikasturtean, berriz, ikastola guztiek izango dute aukera ikas material horiek lantzeko.

4. eta 5. mailen dagokienez, 6.mailarako egindako curriculum eta unitate didaktikoen diseinuaz baliatuz, prozesu bera jarraituko da, eta ikastolei eskainiko zaizkie hurrenez hurren; hots, 2018-19 ikasturtean 5.maila eta 2019-20an 4.maila.



Lehen Hezkuntzako lehen zikloa, Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren arteko zubia izango da. Horri begira, "Haur Hezkuntzarako Ikastolen Proiektua" dokumentuan egindako proposamena irakurri eta aztertzen ari dira, Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako egokitzeko modua bilatzeko. Haur Hezkuntzako lantaldearekin elkarlanean ari dira.

Dinamika hori baliatuz, Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako curriculum-diseinu baterako elementuak definitzen joango dira, proposamen didaktiko zehatz batera heltzeko helburuarekin.

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzari dagokionez, joan den ikasturtean Haur Hezkuntzarako Ikastolen Proiektua dokumentuaren lanketa egin zen, eta ikastolei aurkeztu zitzairen. Hortik abiatuta, ikasturte honetarako jarri diren helburuak hauek dira.

- Ikastolen gehiengoa jasoko duen markoa edo proiektua adostea.
- **Ikastola bakoitzak Haur Hezkuntzarako Ikastolen proiektua bereganatzea, dituen beharrak aztertzea eta horiei erantzuteko ekintza plana diseinatzea.**
- **Ebaluazioa, materialak eta hizkuntzen trataeraren inguruko ikerketa lerroak lantzea, epe motzean erabakiak hartzeko.**
- **Ikastolen arteko ezagutza sarea indartzea proiektu sendo eta berritzaile bat izateko.**
- **Etorkizuneko beharrei erantzuteko bideak jartzea.**

Horretarako, ikastolen parte-hartze zuzena ezinbestekoa da, Ikastolen Elkarteko Haur Hezkuntzako arduradunaren koordinaziopean. Lanketa hori egiteko Haur Hezkuntzako ikerketa taldea abiarazi da. Bertako partaideak dira azken urteetan Haur Hezkuntzan erreferentzia izan diren ikastolak: Txintxirri, Aranzadi, RM Azkue, Ikasberri, Kurutzia, Iñigo Aritza eta Uzturpe.

Ikerketa talde honek zenbait eginkizun izango ditu. Batetik, ikastolei HHko proiektua bideratzen laguntzea. Horretarako ikastola bakoitzak bere erreferente zuzena izango du, elkarrekin ikastola bakoitzeko bide orria eta ekintza plana osatzeko. Bestetik, hiru ikerlerro nagusitan jardungo du: ebaluazioa, hizkuntzen trataera eta material didaktikoa. Halaber, ezagutza sarea indartuko du; ikastolen artean daukaten sarea erabiliko dute, ikastolek dituzten beharrei erantzuna elkarrekin emateko.

BATXILERGOA

Batxilergorako ere egitasmoa lantzen ari dira Ikastolen Elkartean. Izan ere, ikasturte honetan amaituko dute etapa, DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa kompetentzietan oinarritutako eredu pedagogikoarekin aritu diren lehen ikasle taldeek, eta Batxilerra hasiko dute hurrengo ikasturtean. Hezkuntza markoarekiko koherentzian, beraz, etapa horretan ere aldaketa pedagogikoa egitea beharrezkoa da. Horregatik, DBHko diseinua eta irteera-profila kontuan izanik, Batxilergoko diseinuan aurreko etapan ezarritako elementuak txertatuko dira modu koherentean eta DBHko amaierarekin lotura zainduz. Beraz, horretarako lehen lehenik etapa bukaerako ikasle profila zehaztuko da. Era berean, Batxilergorako esku-hartze pedagogikorako diseinu proposamena egingo da ikastola guztientzako, bai ikasmaterial ikuspegitik zein aholkularitza ikuspuntutik.



**OSASUNEZ HARTU
URTE BERRIA!**
ausolan
www.ausolan.com



Horretarako, orain arte DBHko ikas materialen sorkuntzan aritu diren egile talde-
en berrantolaketa egin beharko da, Batxilergorako taldea sortzeko. Datorren ikas-
turtean kontrastatuko da proposamena.



EZAUGARRI BEREIZGARRIAK

- **Ikaslearen irteera-profila. Etapa bakoitzean ikasleak bereganatu behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak zehaztuta daude. Haren arabera eraiki da hezkuntza prozesu osoa.**
- **Euskal curriculuma. Euskal kultura espezifikoaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratzea bilatzen du.**
- **Arlo guztietan txertatzen ditu oinarritzko konpetentzia orokorrak, konpetentzia digitala barne. Pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, eta egiten eta ekiten jakin behar du ikasleak.**
- **Integrazioaren pedagogian oinarritzen da. Egoerei irtenbideak aurkitzen ikasi behar du ikasleak, ikasitakoa egoera berrietan baliatzeko.**
- **Ikaskidetza. Ikaskuntza kooperatiboa erabiltzen da, taldean lan egiten dute.**
- **Euskararen ardaztutako eleaniztasuna. Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ardazturiko planteamenduan.**



EL MODELO DE LAS IKASTOLAS: EL MARCO PEDAGÓGICO

Durante estos últimos años, las ikastolas están implementando el nuevo marco pedagógico encargado por ellas a Ikastolen Elkarte. Este nuevo modelo, basado en el currículum vasco (Euskal Curriculum) y en competencias, es el marco pedagógico del modelo de las ikastolas. Implantado ya en toda la Enseñanza Secundaria, ya está listo para su implementación progresiva en la Enseñanza Primaria. A todo lo anterior hay que añadirle los cambios que se están llevando en la enseñanza infantil y los previstos en Bachillerato. Todo ello está creando una transformación sin precedentes en la enseñanza en las ikastolas. En estas páginas damos cuenta de ello.

LE MODÈLE IKASTOLA : LE CADRE PÉDAGOGIQUE

Ces dernières années les ikastola ont expérimenté le nouveau cadre pédagogique proposé par Ikastolen Elkarte. Ce nouveau modèle, basé sur le curriculum basque (Euskal Curriculum) et les compétences à acquérir par l'élève, est le cadre pédagogique du modèle des ikastola. Déjà implanté dans le Secondaire, il se développe de façon progressive dans le Primaire. A cela, il faut ajouter les changements en train de s'opérer en Maternelle et ceux à venir au lycée. Tous ces éléments constituent une transformation sans précédent dans l'enseignement dispensé à l'ikastola. C'est ce que nous voyons tout au long de ces pages...



EROSKI


zurekin

EROSKI ARRASATE
Musakola auzoa / 20500 ARRASATE-MONDRAGON
943 711 030

EROSKI GARBERA / Garbera Merkatal zentroa
Altza auzoa / 20015 DONOSTIA
943 394 875

KULTURA EUSKARA HERRIAREN GEROA





IKASTOLA EREDUAN SAKONTZEN, ZUZENDARI ETA ADMINISTRARI BURU BERRIEKIN



**Prestakuntza saio trinkoa jaso
dute ikastoletako gidari berriek,
Ikastolen Elkartearen eskutik**

Ikastola eredu sakontzea helburu hartuta, **prestakuntza saio trinkoa jaso dute iazko eta aurtengo ikasturtean kargua hartu duten zuzendari eta administrari buru berriek. Euren egitekoak ugari eta askotarikoak dira. Egiteko horietan guztietan ikastola marka txertatzeko jarraibide eta aholkuak jaso dituzte.**

Azkeneko bi ikasturte hauetan, zuzendari eta administrari buru berri ugari hasi dira euren ikastolen kudeaketa lanetan. Egiteko berri ugari edukita, Ikastolen Elkartetik beharrezkoa ikusi da haientzat berariazko prestakuntza antolatzea.

IKASTOLA BATEN KUDEAKETAN ZUZENDARIEK ETA ADMINISTRAZIO BURUEK FUNTSEZKO EGINKIZUNAK DIZUTE. Beraiek arduratzen dira ikastolen eguneroko gaien antolaketaz eta jardun orokorrez. Haiek dira, hein handian, bazueta Artezkaritza Kontseiluekin partekatuta, besteetan zuzenean, ikastolen figura erreferenteak, bai guraso, langile eta bezeroen aurrean, baina baita ikastolen kanpo proiektzioan ere, ikastola eredu oinarri hartuta. Horretan jarduten dute eguneroko, buru belarri.

Ikastolen Elkartea zuzendari eta administrazio buruen egiteko horietan bide lagun aritzen da, bai zerbitzuak emanez, bai prestakuntzan, nola aholkularitzan eta informazio transmisioan. Zuzendarien eta administrariaren mintegi iraunkorrak ezarriak dira aspaldidanik, gai orokor eta partzialak jorratzeko. Hilero egiten dituzte mintegiak.

Aurtengo eta iazko ikasturteetan, zuzendari eta administrari buru berri ugari hasi dira euren ikastolen kudeaketa lanetan; zuzendaritzetan eta administrazio lanetan ere jende berri ugari hasi da. Egiteko berri

ugari edukita, Ikastolen Elkartetik beharrezkoa ikusi da haientzat berariazko prestakuntza antolatzea. Hala, mintegi trinko bat burutu zen bi saiotan, azaroaren 4an eta 11n, Ikastolen Etxean. Ikastolen Elkarteko alor pedagogiko, administratibo eta laboraleko arduradunak izan ziren ikastaroaren emaileak. Ikastola eredu sakonduz, zuzendaritza eta administrazio gaiak jorratu zituzten bi saio horietan. Hainbat helburu ezarri ziren; besteak beste hauek:

- **Zuzendari edo administrari buru direnei bere jardueraren aspektu garrantzitsuenak ezagutaraztea.**
- **Ikastola bateko proiektuaren hezurdura ezagutzeko eta eraikitzeko lehen laguntza eskaintzea.**
- **Ikastola bateko gobernu eta funtzionamenduaren egitura azaltzea.**
- **Zuzendaritzak dituen berezko zereginak eta konplexutasunak partekatzea.**
- **Administrazio buru izateak dakartzan zailtasunak aurkeztu eta komentatzea.**



Ikastaro trinkoko lehenbiziko egunean, zuzendari eta administrari buru berriei Ikastola Proiektua eta bere ezaugarriak azaldu zitzaizkien. Era berean, Ikastolen Elkartearen eginkizunen eta zerbitzuen berri ere eman zitzaien. Zuzendari eta administrari profilari buruz ere jardun ziren saioan. Ikastolaren gobernuari eta funtzionamenduari buruz ere aritu ziren; baita kontzertazio moduluez et adierazle ekonomikoei buruz ere. Balantzea eta esplotazio konputak ere hizpide izan zituzten saio horretan.

Bigarren saioan, berriz, hezkuntza legedia aztertu zuten mintegian. Adierazle pedagogikoak ere

aztergai izan zituzten. Hobekuntza programez ere jardun zuten ikastaroan. Ikastola eta Administrazioaz ere aritu ziren. Lan arloko gaiak ere aztertu zituzten: lan harremanak, kontratazioak, lan arriskuak, araudi desberdinak... Komunikazio estrategiez eta beharrezkotasunaz ere mintzatu ziren.

Oraintsu arte zuzendari berri izandakoek, berriz, euren esperientzia partekatu zuten orain lan horretan hasi direnekin. Hain zuzen ere, Txantxiku, Laskorain eta Txintxirri ikastoleetako zuzendariak partekatu zituzten euren esperientziak, eta bertaratuek biziki eskertu zuten haiek egin zizkieten ekarpenak.

Mintegian parte hartu duten zuzendari berriei eta administrari buru berriei oso ondo baloratu dituzte egindako bi saioak. Parte hartzea ere oso ona izan da.

Gai ugari jorratu ziren bi saio horietan, eta zenbaitetan sakontzeko aukera irekita dago. Eskariaren arabera antolatuko dira hurrengo saioak.

Mintegian parte hartu duten zuzendari berriei eta administrari buru berriei oso ondo baloratu dituzte egindako bi saioak. Parte hartzea ere oso ona izan da.





IKASTOLEK 800.000 EURO BANATU DITUZTE BEDERATZI PROIEKTUREN ARTEAN

ELKARTASUN IKASTOLAK EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEAK BATZAR NAGUSIA EGIN DU ORION

Aurten, bederatzi proiektu babestu ditu Elkartasun Ikastolak elkarteak. Baionako Bernat Etxepare Lizeoak, Hiriburuko Ametza ikastolak, Seaskaren Ikastolen Etxeak, Tuterako Argiak, Lodosako Ibaialdek, Bastidako ikastolak, Bilboko Harrobiak, Etxebarriko ikastolak eta Argantzungoak aurkeztutako eskariak izan dira.



796.271,81 EURO BANATU DITU ELKARTASUN IKASTOLAK EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEAK, bederatzi ikastolaren artean, iragan azaroaren 24ko iluntzean, Orion egin zuen Batzar Nagusian. Diru hori, urtero ikastolek, euren ikasle kopuruaren arabera, egiten duten ekarpena da, eta inbertsio edota proiektu berrietarako dago zuzendua. Alegia, inbertsio edo proiektu berrian murgilduta, haiei aurre egiteko besteen elkartasuna behar duten ikastolek egiten duten eskariari zuzentzen zaio laguntza, eta ekarpen edo mailegu moduan ematen dira.

Aurten, bederatzi proiektu babestu ditu Elkartasun Ikastolak elkarteak. Baionako Bernat Etxepare Lizeoak, Hiriburuko Ametza ikastolak, Seaskaren Ikastolen Etxeak, Tuterako Argiak, Lodosako Ibaialdek, Bastidako ikastolak, Bilboko Harrobiak, Etxebarriko ikastolak eta Argantzungoak aurkeztutako eskariak izan dira.

Ekitaldi honetarako ikastola guztiek egin dako ekarpena **820.688 eurokoa** izan da. Urtero haziz doa ekarpena, ikasle kopuruak ere gora egin duelako; orotara, **55.288 ikasle** dituzte Ikastolen Elkartean batzen diren ikastolek (Ikastolen Elkarteko ikastola bazkide guztiak daude, baita ere, Elkartasun Ikastolak elkartean). Beraz, iragan azaroko Batzar Nagusian ez zen banatu bildutako diru guztia. Aitzitik, 24.416 euro funts bat sortzeko gorde dira.

IA HAMABOST MILIOI

Ikastolen garapenerako tresna funtsezkoa sortu zuten ikastolek 90.eko hamarkadan, publikazioaren osteko egoera irauli eta etorkizun zehaztugabeari aurre egiteko. Elkartasun Kutxa zena, europar kooperatibaren izaera hartu zuen, 2009an Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteak sortu ondotik. Horrek indartu eta sendotu egin du elkartasun kutxaren egitekoa.

Elkartasun Ikastolak Europar Kooperatibak ia zortziehun mila euro banatu zituen azaroaren 24ko Batzar Nagusian, **beren hezkuntza proiektuentzako laguntza eskatu zuten bederatzai ikastolaren artean. Berriro ere, Elkartasun Kutxak duen balioa agerian geratu zen Batzarrean. Hasieratik hona, 1992. urtetik, ia hamabost milioi euro banatu ditu.**



Ekarpen horren balioa azpimarratu zuen batzarrean Ikastolen Elkarteko eta Elkartasun Ikastolak elkarteko lehendakari Koldo Tellituk, sarrerako hitzaldian.

Izan ere, ekarpen horrek, batetik, ikastolen elkartasunaren neurria adierazten baitu. Erakunde gutxi dira ikastolak baino ekarpen handiagoa egiten dutenak. Kooperatiba izatearen balio handietakoa da elkartasunarena, ikastolen gizarte ekintza eta gizarte ekarpena agerian uzten ditu eta.

Bestetik, berriz, elkartasun kutxaren esku-hartzaren funtsezkotasuna ere agerian uzten du. Egingdako ekarpenaren bidez, beren hezkuntza proiektuak aurrera ateratzeko premian diren edo egon diren ikastolei laguntza ezinbestekoa eman diete ikastolek. Gaur egun oso egoera onean diren ikastola batzuk egoera horretara iritsi dira, besteak beste, bere garaian beste ikastolen elkartasunaren bitartez jasotako laguntzari esker.

“Hau guzti hau, erantzukizunez, arduraz eta seriotasunez buruturiko lana da. Geure buruari tresna eraginkor eta funtsezkoa eman genion, eta emaitzak begi bistakoak dira”, azaldu zuen Tellituk.

Erantzukizunaren adierazle izan zen, berriro ere, ikastola bazkideen parte-hartzea. Deituta zeuden bazkideen %76tik gora agertu ziren Orioko Batzar Nagusira. Erabakiak, halaber, Artezkaritza Batzordeak egindako proposamenen aldekoak izan ziren, babes handiarekin. Babesik gutxiena jaso zuen proposamenak ere botoen %85eko onespina izan zuen.

Elkartasun Kutxa sortu zutenetik, ikastolak urtero urtero ari dira ekarpen handi hau egiten. Iragan azaroaren 24ko batzarrean, urteotan ikastolen ekarpena zein izan den azaldu zen. Izan ere, hamalau milioi euro banatu ziren iaz arte, eta aurtengo ekarpenarekin, berriz, hamabost milioi eurora gerturatu dira ekarpen horiek.

LAS IKASTOLAS REPARTEN 800.000 EUROS ENTRE NUEVE PROYECTOS

La Asamblea General de Elkartasun Ikastolak (cooperativa europea formada por todos los integrantes de Ikastolen Elkartea) ha repartido 800.000 euros entre nueve proyectos de otras tantas ikastolas. La acción social de las ikastolas se ve reflejada en esta caja de solidaridad. Desde que se creó, ha aportado casi 15 millones de euros para ayudar a esos proyectos que en sus inicios no pueden ser financiados solamente con los fondos propios de esas ikastolas.

FINANCEMENT DE NEUF PROJETS À HAUTEUR DE 800.000 EUROS

L'Assemblée Générale d'Elkartasun Ikastolak (coopérative européenne constituée de tous les membres de Ikastolen Elkartea) a réparti 800.000 euros entre neuf projets d'autant d'ikastola. Cette caisse de solidarité reflète bien l'action sociale des ikastola. Depuis sa création, elle a permis de distribuer environ 15 millions d'euros pour aider à financer des projets dont les ikastola ne peuvent assurer seules la totalité du coût.



Badatoz jolasak!

Jolas hezitzaileen gida 2016-2017 eskuragarri **elkar** liburu-dendetan Doan.



www.jolasak.eus



JOLASTU FAMILIAN!

EGUBERRIAN, familian elkartzen gara, eta etxeak jolas, jokoz, jostailuz eta gailu elektronikoz gainezka izaten dira. Une aproposa izan daiteke gure seme-alabei gure denbora, gure astia eskaintzeko, beraiekin jolastuz. Era honetan, gure denbora baliotsua elkarrekin konpartitzea izan daiteke egin diezaiekegun oparirik preziatuena. • Gure seme-alabekin jolasten dugunean, haurrek guretzako garrantzitsuak direla sentitzen dute, gure atentzio guztia beraiei eskaintzen diegula, beraiekin disfrutatu egiten dugula, beraien eredu izan nahi dugula... Haurrek maite ditugula sentitzen dute, eta maitatua sentitzeak haurraren auto-estimua eta zorientasuna bultzatzen ditu. • Elkarrekin jolastuz familiartekoon harremanak sendotzen dira, elkar hobeto ezagutzen dugu, bakoitzaren kezak eta sentimenduak azalratzen ditugu, elkarri laguntzen diogu, eta denen arteko familia-oroitzapenak eraikitzen joaten gara. • Ea hemen proposatzen dizkizuegun jolas eta joko berri hauek laguntzen dizueten helburu hori lortzen. • ITZALI GAILU ELEKTRONIKOAK ETA JOLASTU FAMILIAN!



ARGITXO ANTZARA-JOKOA (5+)

Argitxok kriseilua galdu du basoan. Prakagorriek aurkitu dute, eta gure laguntza behar dute Argitxori kriseilua eramateko. Bidean iturriak, eguzki-loreak, Mari, Basajaun, Lamia, Tartalo... aurkituko dituzte. Beraiek lagunduko diete Prakagorriei aurrera egiten: Iturritik iturrira! Eguzki-loretik eguzki-loreara, eta berriro bota! Lamiaren besoetan gelditu naiz lotan! (txanda bat galdu), Basajaunarekin behar dut hitz egin! (txanda bi galdu), Tartalok harrapatu, eta ezin libratu! (3 txanda galdu), Marirekin gora, Tartaloren ondora! (Tartaloren gana baina txanda galdu gabe) • Jolasaren helburua euskaraz jolasten disfrutatuz euskararekiko atxikimendua garatzea da; arau errazak errespetatuz talde-jokoetan gogoz, eta kideekiko errespetuz parte hartzea, eta honekin batera, sormena lantzea. • Gure helburua da, halaber, Euskal Herriko Ingurune naturala eta Euskal Mitologia ezagutzeko jakin-mina piztea, eta beraiekiko errespetuzko jarrerak garatzea. • Ezaugarriak: Egurrezko taula, 4 prakagorriren figurak, bi dado, eta poltsatxoak. Taularen neurria: 29x29 cm.





NIRE LEHEN HITZAK (4+)

Jolasaren helburua euskaraz jolasten disfrutatuz euskararekiko atxikimendua garatzea da, arau soileko talde- jokoetan errespetuzko jarrerak erakutsiz jardutea, eta irakurketa-idazketa prozesura hurbiltzea.

- Puntuazio desberdina duten hitzak taldean nahiz bakarka osatzen jolasteko jokoa. Jolasteko era desberdinak eskaintzen ditu: banaka (txartel bat

- aukeratu eta bertako hitza osatu, eta esanahia asmatu), binaka (egokitutako txarteleko hitzak bien artean osatuz, edo norberari egokitutako irudia ahozko azalpenen bidez deskribatuz kideari, kideak igarri dezan; hitzak duen silaba kopuru beste txalo joz...), nahiz taldean (kooperazio joko legez, puntuak kontutan hartu gabe eta irabazlerik gabe, nahiz ohiko eran). Kaxan bertan aurkituko dituzue taldean jolasteko argibide zehatzak.
- Asmatu, eta adostu, jolasteko era berriak!
- Ezaugarriak: 22 txartel, taula eta 100 letra-fitxa.

Taularen neurria: 34x34 cm.



ARGITXO PUZZLE PROGRESIBOAK (2-5)

Jolasaren helburua Argitxorekin identifikatuz, eta jolastuz, euskararekiko atxikimendua garatzea da. Honekin batera, banaka nahiz binaka jolastuz disfrutatzea, eta kideekiko errespetuzko jarrerak izatea.

- Baita ere, jarduera osatzeko behar den arreta, irudikapen espaziala eta kontrol motorra (esku-motrizitatea) garatzea, eta norbere sentimenduak eta pentsamenduak era egokian adierazteko ahozko hizkuntza erabilitea.
- Puzzlearekin jolasteko hainbat bide proposatzen dira: banaka (norberak puzzleak egitea), binaka (puzlea bi haurren artean osatzea; puzzlea begiak itxita egitea, kidearen aginduei jarraituz...), nahiz helduok lagunduta (irudiei buruz hitz egitea; Argitxoren eta norbere emozioez hitz egitea; ipuinak asmatzea...).
- Ezaugarriak: 6, 9, 12 eta 16 zatiko 4 puzzle. Puzzleen neurria: 16x16 cm.



Proiektu honen bidez gizarte eragileen, antolakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea lortu da, hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko behar diren neurriak zehaztuko dituen dokumentu bat osatzeko.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK GIZAKIAREN OINARRIZKO ESKUBIDEETAN KOKATU BEHAR DITUGU, ZALANTZARIK GABE. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertu behar dugu.

Horrexegatik, duela bi urtetik hona Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak eta bere parte den heinean Ikastolen Elkarteak garatu duen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa osatzeko dinamikak tresna bat eskaini nahi izan du gorago aipatzen dugun bidean; hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena egin nahi izan dugu. Izan ere, hizkuntza komunitateekiko jardun demokratikoan bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko baitu.

Europa osoan zehar hizkuntza komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren proiektua horien bilgune izan da, Europako gizarte zibilak hizkuntza gutxituen garapenerako proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan. Proiektu honen bidez gizarte eragileen, antolakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea lortu da, hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko behar diren neurriak zehaztuko dituen dokumentu bat osatzeko.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP) hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adoste prozesuaren emaitza da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegi biltzen dituena. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeke tresna. Hortaz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta

instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten. Horretaz gain tresna amankomuna izateak Europa osoan gizarte eragileen arteko elkarlana sustzeko bali oizango du baina baita ere tokian toki esku artean izango dugun tresnak Europa osoko gizarte eragileen babesu duela jakitun izango gara. Hori da azken finean gure indarra.

Protokoloa osatzeko, Kontseiluko kideek, Talde Antolatzailearen babesarekin, Europa osoko gizarte eragileengana jo dute. Horiek egindako ekarpenek mamitu dute Protokoloa. *'Zein dira zure alorrean hizkuntza gutxitua garatu dadin hartu beharreko neurriak?'* galdetu ziguten guri ere. Eta Ikastolak bere alorretik ekarpenak egin zituen. Izan ere imertsio eta mantentze ereduen inguruko ekarpena izan zen nagusia, baina zehatzago ere jo genuen ikastetexeko langileen hizkuntza irizpideak zeintzuk izan behar diren, irakasleen prestakuntza zein izan

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA AURKEZTUKO DUTE **KURSAALEN**

**ABENDUAREN 17AN IZANGO DA EKITALDIA, DONOSTIA
2016 EUROPAR KULTUR HIRIBURUTZAREN BABESPEAN**

Europa mailako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpen ekitaldia egingo da abenduaren 17an, Donostiako Kursaal jauregian. **Lan mardula izan da eragile, aditu eta erakundeek ekarpenak bildu, eta hortik Protokoloa osatzea. Ikastolen Elkarteak bertaratzeko deia egin du, Protokoloak duen garrantzia handia baita.**

behar duen eta aisialdian mintegi berezia antolatu genuen arlo horretan dauden behar bereziak zehazteko, esate baterako, Protokoloak jasotzen du neurri gisa hezitzaileen formakuntza espezifikoa.

Guztira Europa osotik egindako 400 ekarpenetik gora bildu dira dokumentua osatzeko eta Batzorde zientifikoaren ekarpenei esker horiek guztiak protokolo batean txertatzea lortu da.

Ikastolen Elkarteak jarraipen zuzena egin dio Donostiako Protokoloari eta bere babes osoa azaldu dio une oro.

Abenduaren 17an Protokoloa aurkeztuko da Kursaal Jauregian egingo den ekitaldi batean goizeko 11:30ean. Izena ematea gomendatzen dute antolatzaileek www.protokoloa.eus webgunean doako sarrera posta elektronikora jaso ahal izateko. Ikastolen Elkarteak bere indarrak eta grina erakutsi behar ditu eta



Protokoloari bultzada eman behar dio, hura izango baita datozen urteetan lan tresna garrantzitsua hizkuntza eskubideen alorrean. Horregatik Ikastolen Elkartetik ere Kursaal betetzeko deia zabaltzen dugu.

ENTRESAKA: Proiektu honen bidez gizarte eragileen, antolakundeek eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea lortu da, hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko behar diren neurriak zehaztuko dituen dokumentu bat osatzeko

ENTRESAKA 2: Guztira Europa osotik egindako 400 ekarpenetik gora bildu

dira dokumentua osatzeko eta Batzorde zientifikoaren ekarpenei esker horiek guztiak protokolo batean txertatzea lortu da. •

Guztira Europa osotik egindako 400 ekarpenetik gora bildu dira dokumentua osatzeko eta Batzorde zientifikoaren ekarpenei esker horiek guztiak protokolo batean txertatzea lortu da.



Irakurzaletasuna elkarrekin irakurriz kutsatzen da

Uxue Lazkano eta Nora Uribeetxeberria
Nafarroako Ikastolen Elkarteko Irakurketa Mintegiko kideak
San Fermin eta Arangoiti Ikastolak
Zizur Txiki eta Irunberri

Azken urteotan dexente entzuten ari gara irakurketaz eta honek duen garrantziaz. Egia esan gaiak kezka sortzen du. Kezka adituen artean, irakasleen artean eta baita familien artean ere. Hala ere, irakurketaz hitz egiten dugunean gai konplexu bati buruz ari garela kontuan izan beharko genuke, garrantzitsua da bertan eragiten duten faktore ezberdinak zeintzuk diren gogora ekartzea.

GAUR EGUN, informazioaren eta komunikazioaren garaian, irakurtzeko gaitasuna behar bezala garatzea ezinbestekoa dela ez du inork zalantzan jartzen, hori izango baita norbanakoaren garapena zein lanbide garapena bermatuko duen baldintza garrantzitsuenetako bat. Baina irakurle trebea izatea letrak eta hitzak irakurtzea

baino askoz gehiago da. Irakurtzea ulertzea da, esanahiak erakitzea, iritziak osatzea, ezagutzak eskuratzea, gizartearen parte hartzeko ezinbesteko tresna eta, noski, plazerra ere bada.

Hala ere, irakurle kompetentea izatea, bizi osoan zehar garatzen den prozesu luze eta korapilatsua da. Prozesu hau hezkuntzan, ikastolako testuinguru

formalean zein inguru ez formalean, familian, lagunartean, gizartearen eta bestelako eremuetan gauzatzen dela aipatzea ezinbestekoa da.

Jakin badakigu gure haurrek eta gazteek ez dutela soilik hezkuntza sistemaren baitan, eskola eremuan, ikasten. Aprendizai sare ezberdin ugarik eragiten dute ikasleek eskuratzen



dituzten ezagutzetan. Ikastola horietako bat besterik ez da. Familiek, on-line sareek, euskarri ezberdinek, liburutegiek, museoek eta eskolaz kanpoko jarduerak izugarriko eragina dute irakurle onak formatzeko bide honetan. Adituek dioenez ez da inoiz irakurtzen ikasten bukatzen.



Ikastoletako profesionalen artean irakurle kompetenteak hezitzeko bidean eragiteko adostasuna argia izanik, aspaldidanik hainbat ekimen jarri dira martxan. Batetik, irakasleen formazioan eragiteko ikastaroak aipa genitzake. Horren adibide dugu **“Irakurri zertarako? Ulertzeko”** izenburupean Ikastolen Elkartearen aurten burutzen ari den formazioa. Honen helburua ikasleek ulermenezko irakurketarako beharrezkoak dituzten estrategiak eskuratzea da.

Bestalde, irakurzaletasunak prozesu guzti honetan jokatzeko duen ezinbesteko papera aintzat harturik, badira bestelako egitasmoak ere. Horietako bat JUUL kanpaina da, zaletasuna sustatzeko praktika on desberdinak bultzatzen dituen: idazleak eskolan, irakurlagun proiektuak, gau literarioak, ipuin kontaketa, liburutegietara bisitak, JUUL hauteskundeak...

Ibilbide honetan, hala ere, ezin ditugu inolaz ere familiak ahaztu, hauek baitira ikasleek irakurketaren aurrean izango dituzten jarreraren oinarri. Irakurle onak

izateko asko irakurri behar da eta, asko irakurtzeko, zaletasuna ezinbestekoa dugu. Baina irakurzaletasuna emozioetatik sartzen bada, transmititu eta kutsatu egiten bada, familiek uste baino gehiago egin dezakete. Jarrera kontu bati buruz ari gara, beraz, hainbat orientabide kontuan izan beharko ditugu:

Familia giroan irakurzaletasuna sustatzuz:

1. Proposatu, ez behartu
Irakurketa mota ezberdinak iradoki, animatu, lagundu, jarri aukera ezberdinak eskura...sekulan ez inposatu irakurketa bat. Egoera askok ematen dizkigute irakurketara iristeko aukera.

2. Leku eta giro egokiak eskaini

Espazio goxoak sortu, atseginak, gure gustuko txokoak, irakurketa momentu berezia egiten lagunduko duten momentu lasai eta atseginak, presarik gabekoak.

3. Antolatzen lagundu

Irakurketak eta liburuak antolatzen lagundu. Etxeko edo logelako liburutegia, txokoa, prestatzea eta antolatzea guztion artean egin dezakegun lana da.

4. Interesa erakutsi

Irakurtzen duten hortan interesa agertu. Zer irakurtzen ari diren galdetu, irakurketak partekatu, hitzegin, komentatu, beraiekin batera irakurri. Kalidadezko denbora eskaini. Arretaz entzun. Irakurzaletasuna elkarrekin irakurriz kutsatzen da.

5. Eredu izan

Irakurri eta gozatu irakurketaz haien aurrean. Beraiekin komentatu irakurtzen duzuen: eleberria, egunkaria, euskarri ezberdinetako irakurketak...

6. Iraunkorrak izan

Eguneroko gauza bihurtu irakurketa, tartekak eskaini, ohitura bihurtzen lagundu.

7. Errespetatu

Irakurleak irakurri nahi duena aukeratzeko eskubidea du edota momentu batean ez irakurtzeko eskubidea ere bai. Bere nahiak eta eboluzioa jarraitu eta haien erabakiak onartu.

8. Liburuetara gerturatzeko lagundu

Liburu azoka, denda edo liburutegietara eramane. Liburu artean gozatu, begiratu, hartu, ukitu, usaindu, erosi, oparitu...

9. Aholkua bilatu

Liburuzainei, irakasleei, liburu saltzaileei galdetu. Laguntza eskatu, irakurketa gidak eskuratu, web gune espezializatuak arakatu.

10. Gozatu

Irakurketa gozamen da, partekatu plazer uneak liburuek, istorioek, irudiek...zabaltzen dizkiguten bestelako munduak ezagutzeko.


Argi dago badugula zereginik, ez dela erronka makala, baina, elkarrekin ari gara bidea egiten. Guztiak gara irakurleak, gure modura, jarrai dezagun bada aurrera pausuak ematen. Irakur dezagun eta lagun diezaiegun irakurtzen. •



Geure mugikorrek ezkututzen dutena

Kongoko Errepublika Demokratikoko gerraren arrazoiak aztertzen ari dira ikastolak

EKI proiektuaren DBH3ko Gizarte Zientzien 3. unitate didaktikoan, besteak beste, Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra odoltsuak eskuartean darabilzkgun gailu elektronikoekin (sakelako telefonoarekin nahiz tablet-ekin) duen lotura zuzena lantzeko jarduera bat dago. Azaroan, horren berri zuzenean jaso dute zenbait ikastolatako ikasleek, Justine Masikaren lekukotzarekin.



KONGON sakelako telefonoak, tabletak eta horrelako tresnak ekoizteko behar diren mineral ugari daude, eta bertako talde armatuek mineral horiek legez kanpo salduta lortzen dute gerrarekin aurrera jarraitzeko dirua; diru hori gabe, oso zaila izango litzateke haien gerran jarraitzea. Koltanaren ekoizle nagusia da Kongo. Koltana teknologia mugikorraren oinarritzko minerala da.

Kongoko gerra infernu bihurtu da, bereziki emakumeentzat. 100.000

emakumek baino gehiagok sexu-indarkeria jasaten dute urtero. Hori dela-eta, esaten da Kongo dela emakume jaiotzeko munduko lekurik okerrrena.

Alboan gobernu kanpoko erakundeak urteak daramatza drama handi hori salatzen eta bertako bizi baldintzak hobetzeko lanean. Lan horren barruan, hezkuntzak daukan garrantziaz jabeturik, ikastolen Elkartearekin lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuen, eta lankidetzan horretatik irten

da, besteak beste, EKI proiektuko Gizarte Zientzietako DBH3n gaia jorratzeko egitasmoa.

Ez hori bakarrik. Kanpainak ere abiarazi dituzte ikastoletan, telefono mugikor zaharrak bildu eta birziklatzeko. Azaroan zehar, berriz, hainbat ikastolak bisita berezi bat jaso dute. Alboanen eskutik Justine Masika aritu zaie ikasleei Kongoko gatazka azaltzen. **Synergy of Women for Victims of Sexual Violence** erakundeko lehendakaria

da **Masika**, eta bere lekukotza jaso dute ikasleek.

Haztegi ikastolan, Santo Tomas Lizeoan, Arizmendin eta Kirikiñon izan da Masika, DBHko ikasleekin zuzeneko harremana izan du, eta oso esperientzia ona izan da, ikasleentzat zein Masika berarentzat ere. Kirikiño ikastolan, gainera, bertako ikasleez gain, Laudioko ikastolatik eta Bermeokotik joandako ikasleek ere hartu dute parte Masikaren hitzaldian. Gatazkarik Gabeko

Teknologia ekimenaren berri ere jaso dute ikasleek. Ekimen hori, funtsean, garapenerako hezkuntza proposamena da, Alboan fundazioaren hitzetan. Mugikor, tablet eta ordenagailuek Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean dagoen gerrarekin duten lotura ezagutaraztea da bere helburu nagusia. Zentzu horretan, Alboan fundazioaren arabera, ikastolen parte-hartzea oso lagungarria izango da ekimena hedatu eta gizarteratzeko. •

IKASTOLEN

esker. aunitz!

URTEA AMAITU DA ETA ESKERRAK EMATEKO ORDUA IRITSI ZAIGU. Esker ona adierazi nahi dizuegu lagundu diguzuen guztiei, zuen bidez gure ilusio asko bete direlako, aurrera atera ditugulako. 2016ko Ikastolen Jaien izenean txaloak zuentzat guztientzat!

Zuen artean badira Ikastolen Jaiak babestu duzuenak gure erronka handiei erantzuten, horregatik zuen izen ona luzatu nahi diogu ikastola komunitate osoari ESKERRIK ASKO handi batekin, zuen izena eta izana zinez estimatzen dugulako.

Urte berriari atea zabalduko diogu kementsu, osasuntsu eta betiko ilusio handiarekin 2017rako ere proiektu, egitasmo eta erronka berriak ditugulako. Elkarrekin jarraituko dugulakoan Senperen, Mungian, Labastidan, Oñatin eta Lesakan. Lekukoak pasata daude, dagoeneko erronka berriak gauzatzen.

IKASTOLEN JAİETAN URRATS ASKO DAUDE: ANTOLATZAILE PILA ARDUREN JABE, LAGUNTZAILEAK MILA, SENDO BEZAIN TREBE ETA DENOKIN ESKER ONEKOAK GAUDE; TEILATU, ZUTABE PREMIZKOEN ALDE ITUKINIK GABE JARRAITZEA HOBE ERRONKARI EUSTEKO BESTE BEHIN ERE.

MIKEL MENDIZABAL BERTSOLARIA



10:00 Lodosa eta Vianako erraldoiak
11:00 ERRONKA
12:00 Berriketari. La pulga
13:00 "Ze arraroa euskararik gabe Nafarroa"
13:00 Bilaka dantza taldea
14:00 Txutxin Ibañez
16:30 Timbakada

EGUNEAN ZEHAR
DIARIO DE NOTICIASen eskutik haur jarduerak: puzgarriak, ludoteka...

GURE BABESLEEI



GURE LAGUNTZAILEEI



ESKERRIK ASKO EUSKALTEL, EROSKI FUNDAZIOA, EUSKO LABEL, BBK-KUTXA, GIZARTE EKINTZA-VITAL KUTXA, EITB. • ESKER MILE KAIKU, BAQUE, LUMAGORRI, COCA-COLA, AQUABONA, NATURGAS ENERGIA, MAHOU, AUSOLAN, LABORAL KUTXA, EROSKI BIDAIAK, ELKAR.

IKASTOLAK BANAKA



EGUZKI BEGI IKASTOLA GALDAKAO BIDEZKO MERKATARITZAREN BALOIEIEN ALDEKO APUSTUAN MURGILDUTA “BALASPORT” PROPOSAMENA IKASTOLA GUZTIETARA

Inoiz bidezko merkataritzako baloia erosi izan ditugu, baina, kalitatearen aldetik ez dira oso onak izan. Iaz bidezko merkataritzako gaia Gizarte Zientzietan lantzen zenez, berriz ere erabaki genuen gaiari heltzea eta sakontzea, eta ikusi genuen Eskoziako kooperatiba berri batek, **Balaspport-ek** hain zuzen ere, bidezko merkataritzako baloia saltzen zituela. DBHko 3.mailako ikasleekin Balaspport web orrialdea aztertu genuen, eta bereziki erreparatu genion agertzen den bideo laburrari. Horrek argi azaltzen baitu zergatik den garrantzitsua bidezko merkataritzako baloia erostea. • Gizarte Zientzietako EKlko 3.Unitateak ikasleei “Izan Zaitetz Munduan Ikusi Nahi Duzun Aldaketaren egile / Be The Change You Wish To See In The World” proposatzen die **“Sentitu-Pentsatu-Ekin”** metodologia jarraituta, hau da; nahiz eta gazte izan, arazo baten aurrean benetako hausnarketa egin ondoren, posible da irtenbideren bat aurkitzea. **Bideoa** ikusi ondoren, ikasleek berehala nahi izan zuten zerbait egin, eta ondorioz, Gorputz Hezkuntzako irakasleari proposatu zioten Balaspporteko baloia erostea. • Bai Gorputz Hezkuntzako irakasleak, bai EKE arduradunak begi onez ikusi zuten ikasleen proposamena, eta ondorioz 13 baloi erosi zituzten. Orain dela gutxi baloia heldu dira eta ikasleek ikusi dute kalitatezko baloia direla. Beraien ustez, aukera hau zabaldu egin behar da Ikastolen Elkartean, eta beraien asmoa da proposatzea Ikastolen Elkarteko Ikastolei bidezko merkataritzaren aldeko apustua egitea. Balaspport-ek gain, Britainiako **Etikasportek** ere baloia saltzen ditu, eta hemen garai batean **Eroskik** ere Romester markako bidezko merkataritzako baloia eskaintzen zituen. • Erosketa arduratsua interesatzen bazaigu eta interesatuta egon beharko ginatke, orduan, bada kirol munduan aldaketak egiteko aukera. Gainera, EA21eko proiektuan aritzen diren ikastolei kontsumo gaia era praktikoan lantzeko aukera eskaintzen die. Eguzkibegiko ikasleek argi daukate Balaspport-eko baloia oso onak direla, eta baloi hauei esker mundu justuago baten alde gol asko sartuko dituztela, garbi jokatuz gainera. Larramendi ikastolak apustu bera egin du. **Eta zuek...? •**

<http://www.balaspport.co.uk/product/custom-ball/>

ANDRA MARI IKASTOLA ETXARRI ARANATZ HAUR HEZKUNTZAN ESPERIENTZIAK BIZIZ IKASTEN DUGU

Gurasoak bisitan izan ditugu ikastolan. Udazkenean axuriak jaiotzen dira inguruko bordetako artaldeetan eta gure gelan guraso artzain eta gaztagileak ditugunez, Xabierren argazki eta bideoaren bidez jaioberriak ikusi ditugu; eta Aberriekin gasna egin dugu. Iraiaren aitaxo eta amonarekin Maroko ezagutu dugu, hango kulturaz eta hizkuntza entzun, munduko mapan eta bolan kokatu, eta Sakanatik haraino zenbat kilometro dauden behatu dugu. Marrakecheko plazan zeuden suge domatzaileak, eskribak, janari, arropa eta altzariek txundituta utzi gaituzte. Eta nola ez, Sahara basamortua eta gameluak ere ikusi ditugu. •



Lehenengo esnea 36 °tan berotu zuten, gero gatzagia bota eta mamia egin zenean zulodun pala batekin hautsi eta gatzura kendu zion.

Ibarrako Udala dago babesleen artean, bai eta herriko merkatariek ere.
Osakidetza, Bizi Nahi, Ilarki Elkartea, Goienetxe Fundazioa eta Uzturpe Ikastola.



UZTURPE IKASTOLA IBARRA

IBARTARROK ELKARREKIN PASEATZEKO GONBITARI, PLAZER HANDIZ!

“Ibiltzea eta elkarrekin egotea osasungarria da” hauxe da *Ibarra Martxan* egitasmoaren leloa, herriko edadetuei eta gaitasun urrikoei zuzendutakoa hain zuzen. Ohitura osasungarriak sustatzeko asmoz, Ibarrik paseatzea bultzatzen da, beste hainbat herritarrek lagunduta. Ostegunero elkartzen dira eta gure DBH4ko ikasleek hilean behin parte hartzeko konpromisoa hartu dute, gogotik eta pozarren, beraiantzat ere oso aberatsa baita. Egunen batean gu ere adinduak izango garelako; kalean askotan ikusi baina ezagutzen ez genuen pertsonak ezagutzeko aukera dugulako, laburtu dute gazteek. Ibilaldiaren bukaeran mokautxo bat egiten dute elkarrekin, kontu kontari zahar eta berri.



Conce Garralda, Mertxe Ripoll,
Bea Gaston eta Uxua Gallego
amek argitu digute bi
erakundeen arteko lotura.

PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA ATARRABIA

IKASTOLA ETA PARIS 365 ARTEKO HARREMANA BIZI-BIZIRIK

Laugarren ikasturtea izango da lotura hori sortu zela, gizarte arazoei hurbildu zitzaizkelako laguntzeko xedearekin, eskubide sozialaz, integrazioaz eta inklusioaz kezkatutik. *Paris 365* erakundeak premia zuen, eta ikastola prest azaldu zen hura sustengatzeko. Alde batetik, ikastolan hilabeteoro elikagaiak jasotzen dituzte *oinarriko saskiak* osatzeko eta *zopa beroko* programan parte hartzeko. Eta bestetik, larunbatero batxilergoko ikasle-bikoteak *elkartasun jangelara* joaten dira bazkariak zerbitzatzeko laguntzera. Era horietara behar handien duten pertsonekin hurbiltasunean elkartuta aritzen dira, auzolanean eta baloreetan konpromisoa hartuz eta ikasiz. Paz de Zigandako komunitate osoa inplikaturik dago. •

BIHOTZ GAZTEA IKASTOLA SANTURTZI

“50 ALDIZ ESKERTZEN DIZUEGU BIDEA EGITEN LAGUNDU DIGUZUENOI”

Etorri gurekin Altxorra handitzera egitasmoa oso baliotsua izan da guretzat. DBHko irakasleei ideia luzatu, ikasleek gutunak sortu eta Euskal Herriko ikastoletara bidaliko genituen, eskaera erraz batekin: gure 50.urtebetzearen logoa hartu eta nahi zuten argazkia egin zezaten. Izugarria izan da erantzuna: Lehena, Argia Ikastolakoa urrun kilometrotan baina oso gertu bihotzean... San Bizente, Baskonia/Alaves, Tantiurumairu, Hautzarro, Axular Lizeoa, Udaregi, Uzturpe, Txintxirri, Athletic, Enaut Elorrieta, Harrobia, Betiko, Claret Askartza, Asti Leku... eta, konturatu gabe, guztiei esker, altxorra aberastu zen. •



Ikasleek haratago eraman zuten ideia: Zergatik bidali bakarrik ikastoletara, eta ez bidelagun izan ditugun askori eta askori? Askoren erantzuna izan da, oso goxoa eta gertukoia!

LASKORAIN IKASTOLA TOLOSA

2016-2017KO IKASTURTEAN ALDAKETA HANDIAK

Sakramentinoetako eraikin nagusian obrak egin ahal izateko ikastola hankaz gora jarri eta infra-egitura moldaketa ugari egin behar izan dute. Lanak aurrera doaz, dagoeneko Gabonetan gaude! Eraikin nagusia hustu behar izan da, Sakramentinoen lokalak alokatu eta horiek prestatu klaseak emateko. Egurrezko etxea berrantolatu, atezainaren etxea zena erabili, DBHko gelak Usabalera aldatu, Udalaren baimenarekin Berazubi estadioa jolastoki bezala erabili, informatika gela teknologiarekin elkartu, jangela zerbitzuak berrantolatu hiru kokapen ezberdinetan, autobusak ere egokitu... zer ez da egin Laskorainen berrikuntza hauek lortzeko: teilatua, fatxada, solairu guztiak berregin eta patioan estalpe berria eregi. 2017ko irailean eraikuntza berrian sartzeko moduan egonen dira. Zorionak antolakuntzari! •



“GOITU Eraikuntzak” enpresa ari da lanak burutzen.

IKASTOLAK BANAKA



Egindako lan guztia eta aurtengo uzta oparoa ospatzeko, mahatsa zapaldu ondoren, egindako muztioarekin topa egin dugu datorren uzta arte!

ASSA IKASTOLA LAPUEBLA

IKUSI, BIZI, EKIN! HAUR HEZKUNTZAKO HAURROK ERE MAHATS-BILKETAN

Zarata handia kalean, *zer da hori?* galdetu digu andereñoak. Traktoreak dira! *Zer dute?* Goazen ikustera! Ikastolatik atera eta udazkenaren koloreekin eta usainekin egin dugu topo. Begira, begira, landareetan eta traktoreetan mahatsa dago! Erabaki dugu mahastian sartzea eta aztertzea: mota ezberdinak ikusi, dastatu eta bildu ondoren ikastolan lan handia izan dugu. Gure egunerokotasunean hain ohituta gauden fruituarekin jolasteko eta esperimintatzeko aukera ederra landu dugu: alde batetik txoko batean aleak banatu, aukeraketa egin eta garauak kutxan sartu ditugulako. Beste txoko batean, aleak eskuekin zapaldu eta zukua egiten ibili garelako. Eta nola ez gurean ere artistentzako gunea dugunez, mahatsa pintura lez erabiliz margotzen jardun garelako. Gauza anitz egiteko aukera eman digu gure ama lurrak, eta primeran pasa dugu! •

TXANTXIKU IKASTOLA OÑATI

IKASTOLAKO APOAK HIRU HATZ DITU ETA 50 URTE

Ikasturte berezia, betiko gogoratzen, izango da aurtengoa txantxikuentzat, izan ere 50 urte badira Oñatiko ikastola sortu zutela, hezkuntza eredu berritzailean murgilduta daudela eta 2017ko Kilometroak jaia antolatuko dutela. Erroka integrala inondik ere! Horregatik sortu dute logotipo berria, hori guztia biltzen duena. Txantxikuarekin orain arte eduki duten lotura mantenduz, txantxikua bera hartu beharrean, apoaren oinetan oinarritu dira. Txantxikuak hiru edo lau hatz eduki ditzake, baina hirukoa aukeratu dute. “Gure ikastolaren hezkuntza proiektua hiru etapatan banatzen denez, hatz bakoitzarekin etapa bat irudikatu nahi izan dugu. Eta hiru hatzak oin berean jarri gura izan dugu, ikastolaren hezkuntza proiektuak daukan koherentzia eta sekuentziazioa isladatzeko”. •



Bi irudi burutu dituzte. Logotipoak naturari keinua egite aldera hosto baten baitan jasotzen du aipaturikoa. Berde kolorearen degradazioarekin, irudi berriari sakontasuna eman nahi izan zaio. Eta urre kolorearekin, urrezko ezteiak.



Taula gainera deituak izan ziren ikastolak izan dituen lehendakari eta zuzendaria guztiak esker eta txalo beroak jasotzera. Hunkigarria benetan!

HERRI AMETSA IKASTOLA DONOSTIA

50 URTEURERAKO OSPAKIZUNETAN ABESTIA ETA DANTZAK

Herri Ametsa Ikastolak ere beteko ditu 50 urteak ikasturte honetan, eta urteurrenean antolatuko dituzten ospakizunen berri emateko, Donostiako Miramar Jauregia aukeratu dute, paraje guztiz ederrean elkartzeko. Mendiolako (Ulia) eraikinean hilabeteak daramatzate lanean eta jada Intxaurren, Altza, Herrera, Bidebieta, San Pedro eta Trintxerpeko ikasle guztiek ikasi dituzte 50 urteak ospatzeko sortutako abestia eta dantzak. Bideoklip bat ere grabatu dute ikasle ohien laguntzarekin eta doinu horiek hirira eraman nahi izan dituzte, txupinazo lez. •



Ordu batzuk horretan eman ondoren, jasotako zabor guztiarekin kontainer bat bete zuten.

ARIZMENDI IKASTOLA **LEINTZ BAILARA** **JASOTAKO LITXARKERI POLTSAK ETA LATAK NOLA IRITSI DIRA DEBA IBAIRA?**

Udazkenero bezala, Debagoieneko Mankomunitateak Deba ibaiaren garbiketa sustatu du, eta ohi bezala, auzolanean egiteko jarduera gisa aurkeztu du. Ekimen horren baitan, orain aste batzuk Almenenekoek Eskoriatzako Ibarraundi museoko gonbidapena jaso zuten Deba ibaiaren zati bat garbitzeko. Seigarren mailakoak parte hartzera animatu ziren, eta aurreko ostiralean Eskoriatzara joan ziren, auzolanean errekatik zaborra jasotzera. Amaitzeko, ekimenaren

inguruko hausnarketa saio bat egin zuten Ibarraundi museoko arduradunekin batera. Honako galderen inguruan aritu ziren: *Zein zabor mota jaso dugu? Jasotako litxarkeri poltsak eta latak nola iritsi dira errekarara? Zein da zuen jarrera? Zein neurri har ditzakegu arazo hau saihesteko?*

Ikasleen balorazioa positiboa izan zen eta prest agertu ziren hurrengo batean ere ekimen horretan parte hartzeko. •



PIARRRES LARTZABAL **KOLEGIOA** **ZIBURU**

BAIGORRIN EUSKAL MITOLOGIA **ETA** **HARREMANAK LANTZEN**

Ikasturte hasieran proposatu zen txangoa seigarren mailakoentzat Baigorriko Oronozia aterpean euskal giroan jarduteko, ikasleak elkar hobeki ezagutzeko ikastola ezberdinetatik heldu baitira guztiak. Mitologian, musikan, artean, zineman eta herri kiroletan aritzeaz gain, talde txikitan banatuta, lau tailer ezberdinetan parte hartu dute bideoa, musika, gasna eta esku-lanak lantzen. Jolasak eta elkarkidetzak garrantzi handia izan dute, motibatuta izan baitira, hartu-eman azkarrak hazteko. •



Ikasturte hasieran halako txangoak antolatzea biziki aberatsa dela harremanak lantzeko eta euskal kulturaren murgiltzeko ondorioztatu du Pedagogia taldeak berriro ere.

Etxe-Lan

IKASTOLEN SUKALDETARAKO SOLUZIO INTEGRALAK

35 urte ikastolen zerbitzura

GIPUZKOA - 943 79 12 30

ARABA - 945 21 45 93

www.etxe-lan.com



Ateak zabaltzeko larunbatak

Bilboko eta
Donostiako campusetan



Etortzekoa bazara, mesedez jakinarazi

infoacad@deusto.es

ezagutugaitzazu.deusto.eus

☎ 900 500 600